



Osasunako jokalaria Cesar Krutxaga, ingozkoak ainar maiz

Sagardoa nafar erara

Nafarroako sagardo egileen elkarteak atzo eman zion hasiera txotx garaiari; Krutxaga futbol jokalariai edan zuen lehen basoa

Asier Azpilikueta

Kirikoketarenhotsak isilean eta adi-adi entzun eta gero, Beruete (Nafarroa) Behetxonea sagardotegi ko nagusiak 4827 upela zabaldu zuen, eta Cesar Krutxaga Osasunako kapitainak basoratu zuen lehen zurrutza. Sagardoa apur bat dastatu, eta ozen-ozen erran zuen: «Sagardo berria!». Eta Krutxagaren gibeletik, Beruetera bildu ziren guztiek edan zuten. Gero jakin genuen 4827 upeletik ateratzen zen sagardoa ez dela berria, iazkoa dela. Aurtengoa erabat ondu gabe baitago. Izan ere, Berueten Astigarragan baino 6-7 gradu gutxiago egiten du normalean eta gehixeago kostatzen zaio sagardoari ontzea. Baina berdin dio. Kontua da atzo eman ziotela hasiera Nafarroako sagardo garaiari.

Krutxagak azaldu zuenez, atzokoa bezalako hainbat ekitaldira joatea egokitu zaio, Beruete ko sagardo egile baten laguna baita: «Eta gustura izaten naiz halakoetan, Osasuna ordezkatzen eta Nafarroako ohiturak eta sukaldaritza laguntzen». Krutxagak onartu zuen atsegin duela sagardotegietara lagunekin joatea. «Ez dugu aukera handirik, asteburuetan ia beti dagoelako partidaren bat. Baina, ez dagoenean, joaten gara sagardotegietara; batzuetan, Gipuzkoara, baina gehienetan hemengoetara».



Sagardoari laguntzeko, txuleta eder bat

Nafarroako sagardo egileen elkarteak antolatutako ekitaldira jende andana joan zen. Han izan ziren, bertzeak bertze, Donato Larretxea aizkolaria eta Jorge Nagore pilotaria, Ortigosa, Carvajal eta Boesen Portlandeko jokalariai, Manolo Arozena, Bittor Elizagoien eta bertze hainbat bertsolari, Jose Maria Alerdi Lekunberriko alkatea eta Javier Etxarte Nafarroako Go-

bernuko Nekazaritza kontseilaria. Banan-banan, denek edan zuten Ignacio Soralueze Behetxoneko jabeak zabaldu zuen upeletik. Solaluzek esku batekin upeleko kanila hartu zuen, eta bertzearekin Ane bere alaba besarkatzen zuen. Denek beren basoak bete zituztelarik, jantokira joan zireh, sagardotegiko menua dastatzera. Eta orduan ikusi zute sagra-

doa ona zela, baina are hobeak zirela txuletoiak.

«Aurtengo sagardo asko egin dugu», esplikatu zuen Soraluezek, aurtengo sagardoaz galdetu geniolarik. «Eta, gainera, orekatua ateratu da. Azukre nahikoa du, eta horrek erran nahi du 6 bat gradu alkohol izanen dituela. Garraztasun ona du ere bai, eta taninoak ere ongi ditu. Gorputza badu, gorabehera handirik gabe».

Aurtengo uztia egiteko, Soraluezek bere sagarrak erabili ditu bakarrik. 1994an lau hektareara sagarondo landatu zituen, baina orain arte ez diote sagar nahikorik eman eta kanpoan erosi behar izan ditu sagarrak. Aurtengo ordea, sagardo guztia bere sagarrekin egin dago, eta harro dagoela nabaritzen zitzaion.

Ikastaroen bidez ikasi zuen Soraluezek sagardoa egiten. Ohitura aspaldi galdu baitzen Nafarroan. «Guk etxean esnea egiteko behiak genituen», azaldu zuen. «Baina ez zuten bizitzeko nahikoa ematen, eta haragia egiten hasi ginen. Horrek ere ez zuen nahikoa ematen, eta sagarondoak landatu genituen, sagardoa egiteko sagarrak saltzeko. Baina sagarrak saltzera joan nintzelarik, ikusi nituen kontuak ez zirela ongi ateratzen; alegia, ez zela errentagarria. Eta erabaki nuen sagardoa nik neuk egitea, eta nire sagardotegian ematea».

Nafarroako sagardo egileen elkarteak hiru sagardotegik sortu zuten duela zazpi bat urte: Lekarozko Larraldeak, Beruete ko Txaseneko Borkak eta Aldazko Martitxoeneak. Gero, Lekunberri ko Toki-Alai batu zitzaizkien, eta, duela lau urte, Soraluezeren Behetxonea. Aurtengo, Lesakako Lindaurren borda sartuko da elkartearen. «Sagardoa egiteko ohitura galdu zen Nafarroan, eta gu ohitura hori berreskuratzen saiatzen ari gara», bukatu zuen Soraluezek.